

Euskal Kostaldeko UNESCOren Munduko Geoparkea

# GESTIO PLANA

2022

## Aurkibidea

<b>SARRERA</b>	<b>3</b>
<b>1. ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA</b>	<b>4</b>
<b>2. ARDATZA: GEOTURISMOA</b>	<b>6</b>
<b>3. ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA</b>	<b>8</b>
<b>4. ARDATZA: KUDEAKETA OROKORRA eta KOMUNIKAZIOA</b>	<b>10</b>
<b>5. ARDATZA: TOKI GARAPENA ETA JASANGARRITASUNA</b>	<b>13</b>

## **SARRERA**

2022a normaltasunera bueltatuko garen urtea izango dela dirudi, programatutako ekintzak aurrez aurre egingo direla, bertako bizilagunen hurbiltasuna berreskuratuz eta bi urtetan ikusi ez ditugun atzerritarrak berriz ere gure kaleetan ikus genitzake.

Indarrean dagoen Plan Estrategikoaren azkenengo urtea izango da. Beste fase batean sartzen gara, helburuak eta ekintzak berretsi edo berorientatzeko garaia. Prozesu honetan Geoparkeko entitate eta persona garrantzitsuenek hartuko dute parte, estrategia ikuspuntu ezberdinak bateratzeko.

2022a Unescoren revalida urtea da. Aurreko txostenean egindako gomendioak bete direla eta lau-urteko progresio zuzena egin dugula ikuskatzera etorriko dira Unescoren bi ebaluatzaileak. Etxeko lanak egin ditugu eta ez dugu espero ezuzteko desatseginik baina hala ere xehetasun guztiak zainduko ditugu.

Hezkuntza, ikerketa eta geoturismoak aurreko urteetan jarraitu duen ildo berdina jarraituko dute, orokorrean sentsibilizazio lanak egonkortuz eta hartzaileak zabalduz.

Jarraian, 2022ko Kudeaketa Planak zer emango duen azalduko dugu.

## 1. ARDATZA: ZIENTZIA, KULTURA ETA HEZKUNTZA

Ardatz honen baitan ikerketa, lurraren zientzien gizarteratzea, geodibertsitatea eta ondare natural eta kulturalaren kontserbazioari lotutako helburuei erantzuna ematen zaie.

Ondare geologikoaz gain, ondare arkeologikoa, itsas ondarea eta ondare ukiezina hartzen ditu kontuan. Ardatz honen helburuetako bat da, baita ere, ingurumen-heziketako eskaintza koordinatu bat sortzea. Eskaintza horrek, Euskal Kostaldeko Geoparkea publiko desberdinentzako interesgarri egitea du helburu, indar berezia eskola-esparruan ipinita.

### 1.1. LURRAREN ZIENTZIEN (LZ) ALORREKO IKERKETA ETA DIBULGAZIOA

- **Geologia Interes-guneen Inbentarioa (GII).** 2012. urtetik indarrean dagoen inbentarioa eguneratu egin behar da. laz egin zen landa lana eta aurtien dokumentua eguneratuko da.
- **Septarien inguruko ikerketa.** Septariak balioan ipintzeko proiektuaren baitan, UPV-EHUK ikerketa lerro bat proposatu du, geologikoki nola sortu diren eta zein ezaugarri dituen jakiteko. Bi urteko ikerketa da 2022-2023an egiteko.
- **“Diversidad faunística en los ríos del Geoparque: efecto del aislamiento fluvial” ikerketa.** 2022 eta 2023 urteetan zehar garatuko da.
- **Irteera geologikoaren edukia eta materiala.** Irteera gidatuetako materialak berriztu egingo dira.
- **IUGS Geosites kongresua.** 2022an Munduko lehenengo 100 Geositen aurkezpenarako nazioarteko kongresua egingo da Geoparkean.

### 1.2. ONDARE ARKEOLOGIKOA ETA HISTORIAURREA

- **Ermittiako Ikerketaren** jarraipena egingo da, Xabier Peñalver eta Josean Mugikaren eskutik.
- **HAB historiaurreko bailara** proiektuaren lehenengo fasea bukatuko da, Debatik Sasiolako begiratokiaren arteko ibilbidearen exekuzioarekin.
- **Karsta eta historiaurrearen inguruko** ekitaldia. Oraindik formatua definitu gabe dagoen arren, hitzaldi bat edo ibilbidearen irekiera izan daiteke. Deba historiaurrearekin lotuko duen ekimen bat izango da. **Gordailura txangoa** ere izan daiteke, oso azpiegitura ikusgarria eta modernoa da eta inguruko kobetan aurkitutako materiala han dago gordeta.

### 1.3. INGURUMEN HEZKUNTZA

#### **Geoeskolak**

Geoparkeko eskola gehienetako kurrikulumean txertatu dira orain arte prestatu diren hiru unitate didaktikoak. Aurtengo helburua hori mantentzea izango da eta ahal den neurrian finantziaketaren gaia konpontzea. Honen konponbidea, Ingurugelaren katalogoan sartzeko aukera izan daiteke, honek EJK gastuak bere gain hartzea erraztuko bailuke. Hau lortzen denean laugarren unitate didaktikoari ekingo diogu.

Eskaintzaren promozioa egiteko logo bat diseñatuko da.

#### **Ondarearen interpretaziorako gidarien ikastaroa**

Bi urtean behin egiten zen ikastaroa berriz martxan ipiniko dugu. Geoparkean diharduen gidariei formakuntza espezifikoa emango zaie azkenengo urteetan egin diren ikerketen emaitzak azaltzeko: klima aldaketa, paisaiaren bilakaera, amoniteen inguruko ikerketa, etab. Teknikifikazio ikastaro bat izango da bereziki Algorri interpretazio zentroan eta Begi Bistan enpresan lan egiten duten gidariei zuzenduta egongo da.

#### **Konferentzia, ikastaroak, hitzaldiak etab.:**

Urtero hazten doan aktibitatea da, Geoparkeko ordezkarien partaidetza gero eta handiagoa da eremu ezberdinetan. Aurten, aurrez aurreko dinamikak handitzea espero dugu hala ere on line jarduerak mantendu egingo dira. Ekitaldi hauek ikusgarritasun handia dute eta Geoparkea zientzia, turismo, ikerketa eta gestioarekin lotzeko modua dira.

Momentuz Aquariumeko "Marine Ecosystem conservation and management" masterrean egon gara eta "I Congreso de Ecoturismo de la Subbética cordobesa"-n egongo gara otsailean. Hemendik urte bukaerara hamaika ekitalditan izango da Geoparkea, bai nazioartean eta baita erkidego mailan ere.

#### **Irteera gidatuen material grafiko berria**

Urtero gidariek erabiltzen dituzten materialak berriztu egiten dira. Alde batetik erabilerak berak hondatzen dituelako eta bestetik informazio berria sartzea nahi izaten delako. Ikerketek eman dituzten emaitzak edukietan txertatzen dira eta honek, materialaren eguneraketa eskatzen du.

## 2. ARDATZA: GEOTURISMOA

Geoturismoa sustatzeko ekintzak proposatzen dira, beti ere, turismo jasangarriaren irizpideei jarraituz.

### 2.1. PRODUKTUAK ETA BALIABIDEAK

#### **Ekoturismoa**

Ekoturismoa da Geoparkearen turismo jarduera markoa. Agerian gelditu da COVID-19aren krisian, naturaguneak izan direla hoberen baloratuak izan diren helmugak eta Geoparkea horren adierazle izan da. 2022an ildo berdinetik jarraituko dugu. Basquetourrek bultzatutako ekimenetan izango gara, kongresu eta lan-mahaietan jarrera aktiboa edukiz. Hurrengoa martxoaren 9-10 ean izango da Gasteizen, “Euskadiko V. Ekoturismo foroa”

2022an ekoturismo klubean dauden enpresekin promozio ekimen bereziak egingo dira, bideo promozionalak, formakuntza, deskontu kodeak, etab.

#### **Zientzia turismoa**

Pandemia aurretik egindako promozioari helduko diogu berriz. Unibertsitate eta ikerketa taldeak hasi dira bidaiatzen eta gure eskaintza helaraziko diegu gurera etorri daitezen.

#### **Kirol ekitaldiak**

Antolakuntzaren menpe gaude gai honetan. Frogak aurrera ateratzen badira gure laguntza izango dute.

- “Zumaia Flysch Trail” mendi lasterketa
- “Lasturko mendi martxa: Geoparkeko karstaren bira”
- “Flysch Beltza igeriketa zeharkaldia”

**Promozio bereziak**, deskontuak eta opari-bonoa bisita gidatuak promozionatzeko, talde konkretu edo ekitaldi puntualentzat.

**Produktuen hobekuntza.** Eskaintzen diren baina hobetu daitezkeen produktuen hobekuntza bat egingo da. Zergatik ez duten funtzionatzen aztertu: formatua, ordutegia, luzeera etab. baloratuko dira eta behar diren hobekuntzak egin. Nautilus irteera gidatuaren barne, gela didaktikoan umeentzat taller bat egitea aurreikusten da.

## 2.2. IRTEERA GIDATUAK

Bisitari datuak eta bisita kopurua mantentzea da helburua, gutxien ateratzen diren bisitak indartuz. Programazioa urtero bezalakoa izango da, 16 bisita mota eta 1.000tik gora bisita programatuko dira denboraldi honetan ere. Aste Santutik azaroko zubira irteerak egunero egongo dira eta neguan, asteburuetan bakarrik.

Protokolo eta segurtasun neurriak mantenduko dira behar den arte.

Irteera gidatuen merkaturatze bidea hurrengo hau izango da:

- [www.geoparkea.eus](http://www.geoparkea.eus) webgunea eta on line erreserba sistema.
- Geoparkeko hiru turismo bulegoak
- Bidaia-agentziak eta agentzia errezeptiboak. Urtero-urtero indar gehiago hartzen doaz eta negozio bolumena handitzen.

Taldeei dagokienez, Geogarapenek kudeatzen ditu eta talde motaren arabera tratamendu desberdina ematen zaie. Eskola taldeen eskaerak Algorrira bideratzen dira zuzenean eta aisialdiko talde orokorrak eta erabakian eragina izateko aukera gutxi daukatenak, bertako enpresei. Honen helburua, bisitarien egonaldia luzatzea da, toki ezberdinak bisitatu eta esperientzia ezberdinak sustatzeko tratamendu pertsonalizatu baten bitartez, azken kasu honetan bakarrik egiten du kudeaketa zuzena Geoparkeak.

Online erreserba sisteman ordainketa bide berriak ipiniko dira, adibidez Bizum bidez.

## 2.3. PROMOZIOA ETA MERKATURATZEA

Turismo promozioa egiteko erremintak urterokoak dira:

- **Turismo feriak.** Aktibitatea normaltasunez ematen denean, aurreko dinamikak berreskuratuko ditugu eta aurre ikusita dauden ferietara joango gara edo materiala bidaliko dugu, Basquetour edo Gipuzkoako Aldundiaren bitartez. Fitur 2022ra gerturatu gara nahiz eta stand propiorik ez izan. Ekoturismo kluba ere nazioareko ferietara gure materialarekin joango da.
- **Merchandising** produktu berri bat aterako da, turismo bulegoetan saldu eta opari bezala erabiltzeko.
- **Promozio bereziak**, deskontuak etab. eskainiko dira.
- **Argazki albuma.** Webgune eta folletuetako argazkiak berriak erosiko ditugu.

### 3. ARDATZA: LURRALDEA ETA KONTSERBAZIOA

#### 3.1. IBILBIDEAK ETA MENDI-BIDEAK DISEINATZEA

- 4 Georuta berri diseñatuta daude: Historiaurreko bailara, Lastur- Arbil, Itziar-Andutz eta Aitxola-Sesiarte. Historiaurreko bailarak bere garapena darama, beste hiruretan lurjabeekin hitz egin behar da ibilbidearen plangintza zehatza egiteko.
- Geoparkeko bira trackeatu eta ematen dituen aukerak baloratuko dira. Ibilbide edo eta produktu turistiko bezala diseinatu nahi da.
- **Biotopoko sarbideak antolatzeko** txostenean oinarrituta Geoparkeak ipini zituen señaleak berrantolatu egin behar dira.

#### 3.2. INTERPRETAZIORAKO AZPIEGITURAK

Ez dago zuzenean Geoparkeak exekutatu behar duen azpiegiturearik. NEXT funtsak lortuz gero oso bestelakoa izango da egoera eta azpiegituren eraikitzeak izango du lehenetasuna. Hala ere emaitza hau ez da urte bukaera arte jakingo.

#### 3.3. NATURAREN BABESA ETA KONTSERBAZIOA

- Deban hilerri berriaren obrekin, aintzinako terraza flubial bat azaldu da. Bere baitan kontserbatzeko neurriak hartu behar dira.
- BIOTOP (Biodibertsitate topaketa) **herritarren zientziari** lotutako ekimena urtero bezala buruko da. Non eta zein gairi lotuta erabakitzeko dago oraindik.
- Nazioarteko egunen ospakizuna. GGN saretik jasotzen dugu nazioarteko egunak ospatzeko gomendioa. Horrela, aurten lau egun ospatuko ditugu:
  - Hezeguneen Eguna, otsailaren 2an.
  - Ama Lurraren Eguna, apirilaren 22an.
  - Geodibertsitatearen Eguna, urriaren 6an.
  - Mendien Nazioarteko Eguna, abenduaren 11an.
- Zuhaitz Eguna otsaila eta martxoa artean ospatuko dugu iaz hasitako zuhaitz landaketari jarraituz, GFAREN eta Itziarko Auzo Udalaren laguntzarekin.
- Naturarekiko sentsibilizazioa indartzeko beste ekimen batzuk ere burutuko dira; Naturaldia, argazki erakusketa, sorbeltzen kabiak, etab.



Ekosistema eta habitatak lehengoratzeko lan ildo jarraituz, 2021ean hasi ziren Santa Katalina inguruko lanekin jarraituko dugu 2022an. Udala, Biotopoko kudeatzailea eta bertako erabiltzailearen artean adostu behar dira nondik norakoak erabilera eta zonifikazioaren inguruan, goialdeko landaketarekin hasi aurretik.

### **Labarren garbiketa**

Iazko uholdeen ondorioz labarren oinarrian pilatutako zabor kopurua oso handia da. Azkenengoz 2017an egin zen eta berriz egiteko garaia dela uste dugu. Ekaina inguruan dirudi sasoi egokiena, Aldundiarekin batera dena antolatu eta herritarrei deialdia egingo diegu.

#### 4. ARDATZA: KUDEAKETA OROKORRA eta KOMUNIKAZIOA

2022an ere lan postuak eta kanpo laguntzak mantentzea da helburua.

Lantaldea: Geogarapeneko langileak

- **Gerentziak** Geoparkearen kudeaketa orokorrarekin lotutako eginkizunak betetzen jarraituko du, bai Europako eta Munduko Geoparkeen Sarean (EGS/MGS) eta Espainiako Geoparkeen Batzordean (CNEG) ordezkari-tza-lanak gauzatzen ere.
- **Irteera gidatuen dinamizatzailerearen eginkizuna**
  - On line sistemaren kudeaketa.
  - Turismo atalaren kudeaketa orokorra.

Kanpo-laguntza:

- **Zuzendaritza Zientifikoak** bere eginkizunekin jarraituko du, bai EGS eta MGS ordezkari-tzarekin. IUGSeko Ondare geologikoko koordinatzaile lanak egingo ditu eta hortaz Geoparkeen Kontseiluan parte hartuko du.
- **Komunikazio-zerbitzua eta prentsa-kabinetea** arduratuko da komunikazioaren alorreko aholkularitza, prentsa-oharrak sortzeaz, webgunea eguneratzeaz, newsletterrak, eta abarrez.
- **Community managerra** (sare sozialen kudeatzailea) @Geoparkea markaren estrategiaz Facebooken, Twitterren eta Instagramen arduratuko da.
- **Ingurumenaren eta jasangarritasunaren** koordinazioa, Naturagune Babestuen (NB) jarduerak eta ingurumen-heziketako ekintzak sustatzeko.
- **Kontabilitate, aholkularitza juridikoa eta urteko kontuen ikuskaritza** erakundearen kudeaketarako.

Geoparkeko **Plan Estrategikoaren** eguneraketa egin behar da. Aurreko epea 2016-2020koa zen, pandemia dela eta bi urte luzatzea pentsatu dugu baina aurtun, datozen 4 urteetarako plangintza egin behar da.

#### 4.1. HARREMANAK EUROPAKO GEOPARKEEN SAREAREKIN (EGS) ETA UNESCOREKIN.

Atal honen helburua nazioarte mailan Geoparkearen presentzia eta influentzia handitzea da. Horretarako, jarrera aktiboa izango dugu bai antolatzen diren topaguneetan, baita eskaintzen zaizkigun beste aukera batzuetan ere.

**2022ko UNESCOren ebaluazioa.** Gauzak normaltasunez joango direlakoan, udako ebaluaketa prestatuko dugu. Azkenengo lau urteetan egin den lanaren berri emango dugu, dokumentazioa bidalita dago eta ezer berririk eskatzen ez badute, ebaluatzaileen izendapenaren zain egongo gara.

EGN topaketak 2022ean:

- Udaberriko hitzordua Honsdrug Geopark (Holandan).
- Udazkenean, oraindik erabaki gabe dago non elkartuko garen.

Urteroko ekarpenak Europako eta Munduko Geoparkeen Sareari, sustapen-tasa gisa lehenik, eta UNESCOren Geoparkeen programaren funtzionamendurako ekarpen gisa bigarrenik.

Europako Sareko Koordinazio batzordeetan hurrengo lantalde hauetan hartuko dugu parte:

- SDG (GIH/ODS) lantaldean
- Hezkuntza lantaldean
- Fosilen lan taldean
- Geoturismo lantaldean

Bi sareek erabiltzen dituzten informazio-euskarrietan gure ekarpena handituko dugu. Besteak beste:

- EGN newsletter, sei-hilerokoa
- GGN Newsletter
- EGN magazine

Kontrolerako erabiltzen diren txostenak ere bidaliko dira:

- Urteko txostena
- Geoparkeen asteko programa eta balorazio txostena

**Unescoren ebaluatzaile zerrenda.** bi ordezkari ofizialek, Asier Hilario eta Leire Barriusok, Unescoren ebaluatzaile lanak egiten dituzte eta urtero hautagaitza berriak eta ebaluazioak egiteko misioak egiten dituzte. 2022an dinamikak berreskuratuko direla dirudi eta udako misioak bueltatuko direla.

## ESPANIAKO GEOPARKEEN FOROA

Foroaren ekimenetako bat **Geoparkeen Jardunaldi irekiak** izaten dira eta urtero toki ezberdin baten eta gai ezberdin batekin antolatzen dira. 2020an Maestrazgoko Geoparkean zeuden aurreikusita baina 2021era atzeratu zen. 2022an Leridako Origen Geoparkean izango dira.

Aurrera pauso bat eman nahi da geoparkeen arteko harremanetan eta elkarte bat osatu nahi da, diru laguntzetara aurkezteko nortasun juridikoa izateko. Gobernuak kaleratutako “Experiencias Turísticas de España” programara aurkeztu nahi dugu geoturismo esperientzia Espainiako Geoparke guztien artean.

### **CNEG (Comité Nacional Español de Geoparques)**

Batzorde honetan ordezkaritza, Geoparkeko ordezkariaren eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Zuzendariarena da. Erabaki garrantzitsuak aurre ikusten dira batzorde honen baitan, batzorde beraren sorrera arautzen duena eta bestetik, Unescora bidali aurretik hautagaitza berriei ezarriko zaien lehentasun eta egiaztapen dokumentuaren edukia. Aldi berean, estatuan sortzen diren hautagaitza guztiak aztertu eta aholkularitza ematen zaie eta behar bada, lehentasunen dokumentua aplikatzen lagunduko zaie.

## 4.2. KOMUNIKAZIO ESTRATEGIKOA

### ON LINE

- Webgunearen kudeaketa eta erreserba zentralaren hobekuntzak. BIZUM bidez ordainketa egiteko aukera zabalduko da.
- Albisteen atala eguneratuta mantenduko da. 2022an 30 bat albiste argitaratuko dira webgunean.
- Newsletterra bi hilebetero bidaliko da gutxi gorabehera. 6 bat ale, urte osoan.
- SEO auditoria ondoren, beharrezko neurri zuzentzaileak hartuko dira.
- Alta merkataritza elektronikoan, datuak hobetu kudeatu ahal izateko.
- Geoparkean egiteko planak edo eta zientzia artikuluak zintzilikatzeke **blog** bat sortuko dugu.

### OFF LINE

- Komunikabideetan **publizitatea kontratatzea**, irratian zein prentsan edo aldizkari espezializatuetan. Batez ere, hiriburuetako komunikabideetan eta jarduera turistikoa murriztagoa den hilabeteetan.
- Baleike eta Debaberri aldizkarietan kolaborazioa mantendu dira, Geoparkea eta zientziari buruzko artikuloak idatziz.

## 5. ARDATZA: TOKI GARAPENA ETA JASANGARRITASUNA

### 5.1. LEHEN SEKTOREA SUSTATZEA

- **Geogourmet otarrak** saltzea lurraldean ekoiztako produktu bereziak balioesteko eta Geoparkea sustatzeko ekintza gisa. Hornitzaile berberekin jarraitzen dugu, eta hiru turismo-bulegoetan egongo dira salgai prezio berean.
  - Txakolina: Sagarniña eta Flysch
  - Gazta: Goienetxe
  - Atuna kontserban: Zizzo eta Nardín

### 5.2. GEOPARKEZALEAK

- 2022rako aurre ikusitako ekimenak burutuko dira orain arte Geoparke zaleak diren kideekin.
- **Prospekzio bisita Villuercaseko Geoparkera** (Caceres). 2020 aurre ikusita zegoen, bi urte atzeratuko dugu.
- **Entitate kolaboratzaileei** formakuntza emango zaie: oinarrizko geologia, geoparkeko baliabide turistiko eta didaktikoak, etab.

### 5.3. GEOPARKEEN EUROPAKO ASTEA

Maiatza eta ekaina artean Europako Geoparkeen Astea gauzatuko da. Datak gerturatzerako, programa sortuko da, leloa erabaki eta ekintzetan jendearen partaidetza sustatuko da. Oraindik zehaztuta ez badago ere, antolatuko diren ekitaldiak honako hauek izango dira:

- Hitzaldiak
- Tailerrak, erakusketak...
- Doako bisita gidatuak
- Marrazki lehiaketa ikasleentzat
- GeoTalks
- Geoparkeko bira etapaka (...)